



Familia agurgarria:

COVID-19 koronabirusak EAEko lurralde osoan izandako aurrerapenaren aurrean, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren jarraibideei jarraituz, **Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztien eskola-jarduera presentziala aldi baterako etetea erabaki du Jaurlaritzak.**

Zirkular honen bidez jakinarazten dizuegu San Benito Ikastolak ere **15 eguneko iraupena duen etenaldia egin behar duela, martxoaren 13tik aurrera (printzipioz martxoaren 30 arte)**. Ondorioz, bertan behera geratzen da aurrez aurreko eskola-jarduera guztia.

Nolanahi ere, eskola-jardueraren aldi baterako etenaldia ez da eskola-jardueraren etenaldizat hartu behar; aitzitik, ahalegina egin behar dugu ikasleek egunero etxean ikasteko ohiturari eutsi diezaioten. Horregatik, San Benitoko langileak Ikastolan egongo gara.

Aldi horretan, irakasleek material didaktikoa prestatu eta ikasleen eskura jarriko dute, ahal den neurrian, modu ez-presentzialean lan egiten jarraitu ahal izan dezaten. Aurrerago jakinaraziko zaizue, etaparen arabera, zein diren jarraibideak.

Horrez gain, Osasun Sailak gomendatzen du, nahiz eta ikasleek etxeko bizitza normala egin dezaketen, ahal den neurrian saihestu dezatela taldeko jarduerak egiten diren esparru itxietan egotea. Era berean, osasun-agintarien gomendioak betetzeko eskatzen dizuegu, hartutako neurriek birusa kontrolatzen lagunduko dutelakoan.

Informazio eguneratua eta jarraibide operatibo gehigarriak izateko, sailaren webgunearen barruan atal bat gaitu da, gomendioak eta mezu berriak aldizka helarazteko.

<https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>

Adeitasunez,

IKASTOLA